

AMURRIO UDALAREN ETA "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA"-REN ARTEAN TOKIKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK SUSTATZEKO ETA FINANTZATZEKO HITZARMENA.

AMURRIOko Udaletxean, 2023ko ekainean

HONAKO HAUEK BILDU DIRA.-

Aide batetik, **TXERRA MOLINUEVO** jauna, **AMURRIO** Udaleko alkateudalburua (NAN zk.: 44.686.921-Z) erakunde horren ordezkartzan.

Beste aide batetik, **LUIS XABIER UGALDE GULIAS** jauna "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA"ko presidentea, (NAN zk.: 14.949.925-V) eta erakunde horren ordezkartzan.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko bata bestearekiko eskumena eta ahalmena aitortu ondoren;

ADIERAZI DUTE.-

Etorkizuneko informazioaren gizartean, berebiziko garrantzia dauka euskarari dagokionez hurbileko espazioak irabazteak, are gehiago komunikazioak eta komunikabideek hizkuntzaren normalizazioan duten garrantzia kontuan hartuta.

Testuinguru honetan sortu zen AIARALDEA KOOP. ELK, irabazi asmorik gabeko eta gizarte ekimeneko kooperatiba (2017ra arte Info-Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarte izandakoa, legeak zehazten duen moduan elkarte izatetik Kooperatiba izaerara subrogatu dena), hain justu Aiaraldea eskualdeko euskarazko komunikazioa sustatzeko asmoz. Kooperatibaren xedeetako bat euskarazko komunikabideak eta komunikatzeko ekintzak abiaraztea eta garatzea da, komunikazioaren eremu tradizionaletan zein berritzaileetan lan eginez, betiere gizarte kohesioaren aide eginez, inolako irabazi asmorik gabe eta administrazioekin eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalekin elkarlanean.

Helburu horiek lortzeko, "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK eta AMURRIO UDALAK" euskarazko tokiko komunikabideak sustatzeko eta babesa emateko konpromisoa hartu dute. Zehatzean, AIARALDEA HEDABIDE TALDEAK sustatu eta kudeatzen dituen komunikabideak babestekoa: www.aiaraldea.eus webgunea ("Aiaraldea Gaur" izenekoa), eta paperezko bi-astekaria ("Aiaraldea Hemen").

Izan ere, komunikabide hauen bitartez hizkuntzaren normalizazioa bultzatzen da eta AMURRIO udalerria horren guztiaren onuraduna da.

Hori oinarri harturik, AMURRIOko Udalak uste du udal esparruan interes publikoko proiektua dela, zentzu berdinean aitortu dio Eusko Jaurlaritzak ere "gizarte ekimeneko" izaera Kooperatibari.

Beraz, erakundeek tokiko euskarazko komunikabideen sustapenean egin dezaketen esku-hartze aktiboa gauzatzeko asmoz, bi aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatu dute. Honako klausula hauek egongo dira indarrean hitzarmenean:

KLAUSULAK.-

Lehenengoa: Hitzarmen honetan AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAren eta AMURRIO UDALAren arteko 2023rako lankidetzaren zehaztu da, euskarazko komunikabideei dagokienez. Hala ere, lankidetzaren xedea epe luzerako dela kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzaren hori aurten garatzeko konpromisoa adierazi dute, berariaz uko egin ezean, urtero luzatzeko aukerarekin.

Bigarrena: Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, AMURRIO Udalak ahalmena izango du "AIARALDEA HEDABIDE TALDEKO" jarduerak ezagutzeko, baita hedabide taldeko kontu ekonomikoak ezagutzeko ere.

Hori dela eta, aipatutako bien arteko harremana eta lankidetzaren iraunkorra izateko asmoz, AMURRIO Udalak eskubidea izango du, hedabide taldearen finantzaketa xehea, urteko balorazioak eta plangintzak ezagutzeko.

Era berean, eta hitzarmena sinatzen duten aldeetako batek hala eskatzen duenean, bi aldeak batzartuko dira, hitzarmenaren edukien gaineko jarraipena egiteko zein beste edozein helburutarako.

Hirugarrena: AMURRIO Udalak "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA"ri ondorengo diru-laguntza ekonomikoa emateko konpromisoa hartzen du:

6 2023. urtean: 6.000 €

Urteko diru-ekarpena bi ordainketatan egingo da, % 75 hitzarmena sinatzen denean (edo urtearen hasieran), eta gainerako % 25 horren justifikazioa likidatu ondoren. Diru ekarpenaren ordainketa "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA"-ren kontu korrontean egingo da (Laboral Kutxa: ES55-3035/0045/21/0450079351).

Bere aldetik, "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK" guztira urtero jaso duen zenbatekoaren bikoitza justifikatu beharko du, hain zuzen, hitzarmen honen xede diren eginkizunak gauzatzeari dagozkionak, diruz laguntzeko zenbatekoaren %100 eskuratzeko bederatzigarren klausulan xedatutako baldintzetan. Zenbateko hori justifikatzen ez bada, bigarren entregatze eta likidazioan dagoen zatia jaitsiko da, guztizko gastuaren gaineko diru-laguntzaren portzentajea mantentze aldera.

Laugarrena: Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, AMURRIO Udalak, AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN "Aiaraldea Gaur" eta "Aiaraldea Hemen" komunikabideak diruz lagunduko dituen heinean, jendaurrean esker ona jasoko du bi tresna horietan babesle gisa azalduz.

Udalaren logotipo normalizatua web-guneko zein paperezko hamabostekariaren kredituari buruzko informazioarekin (posta helbideak, egoitzak, eta abar) batera sartuko da hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Bosgarrena: Aiaraldea Hedabide Taldeak, informazioa jorratu eta zabaltzeko orduan, mota guztietako edukiak eta gaiak argitaratuko ditu. Independentea, askotarikoa, orekatua eta parte-hartzailea izango da. Horrenbestez, alderdi politikoen eraginpean egotea saihestu eta inpartzialtasuna zainduko du. Aipatu komunikabideetan eskualdeko gainerako elkarteek eta edozein herritarrek hartu ahal izango dute parte.

Seigarrena: Iritziaren atalari dagokionez, edozein herritarrek izango du eskubidea eta aukera bi hedabideotan bere iritzia emateko: hedabideek, alderdikieriatik aldenduz, iritzi politiko ezberdinetako pertsonen presentzia bermatuko du, eta, horretarako, guztien arteko oreka zainduko du.

Zazpigarrena: Aipatutako izaera irekiarekin bat etorriz, hitzarmenaren xede diren hedabideetan mota guztietako edukiak eta gaiak landuko dira. Dena den, pertsonenganako errespetua zainduko da, eta, beraz, ez da irain edota oinarririk gabeko difamaziorik onartuko.

Zortzigarrena: "Aiaraldea Gaur" eta "Aiaraldea Hemen" euskara batuan idatziko dira, baina eskualdeko hizkuntza aberastasunari eta euskalkiei ere bide emango zaie. Hizkuntza irakurlearen eredu bilakatu daiteke, eta, zentzu horretan, hedabideak saiaturiko dira ahalik eta eredurik onena eskaintzen. Horrenbestez, gutxieneko hizkuntza kalitatea bermatuko da.

Bederatzigarrena: Honako betebeharrak hauek izango ditu AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK:

a) AMURRIO Udalarik, urteko kontuak ixtearekin batera jakinaraziko dio zein beste diru-laguntza, laguntza edota baliabide lortu dituzten hitzarmenaren xede diren hedabideen jarduerari finantzatzeko.

b) Ziurtatuko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta dituela.

c) "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA"-k itxi den urtearen ondorengo urtarilaren 31ra bitarteko epea izango du AMURRIO Udaleko Erregistro Orokorrean honako dokumentazio hau aurkezteko:

c.1) Itxi berri den urtearen hitzarmena justifikatzeko dokumentuak:

- Itxi berri den urteari dagokion hedabideen **gastu eta diru sarreren balantzea**

- Itxi berri den urteari dagokion jardueren memoria eta ebaluazioa eta diruz lagundutako jarduerak egin izana egiaztatzeke zinpeko aitortpenak.
- Justifikazioa, eta, hala badagokio, itxi berri den urteari dagokion ekitaldian ordaindu gabe dauden kopuruen likidazio eskaera.

c.2) Hitzarmen-urte berriaren urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharreko dokumentuak, betiere bi aldeek berariaz uko egin ez badiote:

- Urte berriari dagokion aurrekontu zirriborroa.
- Urte berriari dagokion jardueren proiektu zirriborroa.
- Jasoko den emakidak 3.000 €-ko zenbatekoa gainditzen badu, Arabako Foru Aldundiak eta Gizarte Segurantzak igorritako zerga betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

“AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA”rekin sinatutako hitzarmena luzatzen baldin bada, aurreko c.1) eta c.2) ataletan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du adiarazitako ekitaldirako.

Hitzartutako guztia behar bezala idatziz jasotzeko, bi ale sinatu dituzte dokumentu honetako bi aldeek, ondorio bakar baterako, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

TXERRA MOLINUEVO ALAÑA
AMURRIO Udaleko alkatea

LUIS XABIER UGALDE
AIARALDEA KOOP.ELKARTEAren lehendakaria